



ATAUNGO UDALA

ATAUNGO UDALA

Etkez etxeko laguntza zerbitzua arautzen duen udal arautegiaren behin betiko onarpena.

Etkez etxeko laguntza zerbitzua arautzen duen udal arautegiaren behin betiko onarpena. Osoko Bilkurak, 2018ko irailaren 25ean egindako ohiko bilkuran onartu zuen Etkez Etxeko Laguntza Zerbitzua erregulatzeko Araudia. Arauzko informazio publikorako epea inolako erreklamazio eta oharpenik gabe igaro ondoren, irmoa eta behin betikotzat jotzen da. Behin betiko testua ondorengo hau da.

Hori guztia argitaratzen da Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 70 artikuluan ezarritakoa betez eta bertan aurreikusitako ondorioetarako.

Erabaki honen aurka, Administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkez daiteke Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako Sailean, honako hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita bi hilabeteko epean.

Ataun, 2018ko abenduaren 4a.—Asier Rodriguez Etxeberria, alkatea. (8111)

Ataungo Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua. Araudia.

— Aurkibidea.

Arrazoiaren azalpena.

Lehen titulua.

1. artikulua. Xedea.
2. artikulua. Aplikazio eremua.
3. artikulua. Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren definizioa.
4. artikulua. Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren helburuak.

Bigarren titulua. Etxez etxeko laguntza zerbitzua.

I. kapitulua. Zerbitzuaren baitako eta zerbitzuaz kanpoko prestazioak, aldaera eta ezaugarriak.

5. artikulua. Zerbitzuaren baitako eta zerbitzuaz kanpoko prestazioak.
6. artikulua. Zerbitzuaren aldaera: atsedenerako zerbitzua.
7. artikulua. Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren ezaugarriak.

II. kapitulua. Erabiltzaileak.

8. artikulua. Erabiltzaileak zehaztea.
9. artikulua. Zerbitzuan sartzeko baldintzak.
10. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak.
11. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak.

III. kapitulua. Zerbitzuan Sartzeko Prozedura.

1. atala. Eskatzaileen Zerrendan Sartzea.
12. artikulua. Eskatzaileen zerrenda.
13. artikulua. Zerbitzuaren eskatzaileen zerrendan sartzeko eskaria.

14. artikulua. Eskariarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.

15. artikulua. Izapidetzea.

A) Beharrianen ebaluazioa.

B) Gizarte Txosten proposamena.

16. artikulua. Ebazpena.

17. artikulua. Premiazko egoerak.

2. atala. Zerbitzuaren Onespena eta Zerbitzurako Sarbidea.

18. artikulua. Zerbitzuaren onespena.

IV. kapitulua. Zerbitzuaren Egokitzapena eta Jarraipena.

19. artikulua. Jarraipena eta ebaluazioa.

20. artikulua. Egokitzapena.

V. kapitulua. Zerbitzua Etetea eta Iraungitzea.

21. artikulua. Zerbitzua etetea eta iraungitzea.

21.1. Zerbitzua aldi batez etetea.

21.2. Zerbitzua iraungitzea.

VI. kapitulua. Zerbitzuaren Araubide Ekonomikoa.

22. artikulua. Prezio publikoa.

23. artikulua. Finantzaketa.

24. artikulua. Zerbitzuaren erabiltzailearen ekarpena.

Lehen Xedapen Gehigarria.

Bigarren Xedapen Gehigarria.

Hirugarren Xedapen Gehigarria.

Xedapen Indargetzailea.

Amaierako Lehen Xedapena.

Amaierako Bigarren Xedapena.

I. eranskina. Zerbitzuan Sartzeko Baremoa.

II. eranskina. Ekarpn Ekonomikoaren Baremoa.

ARRAZOIEN AZALPENA

Egungo Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren udal-araudiak, Gizarte Zerbitzuen 1996ko Legean ezarritakoari jarraiki onartutakoak, egokitzapen bat eskatzen du, azken urteetan legegintzan egin diren garrantzizko aldaketei dagokienez.

Bai Autonomia pertsonala sustatzeko eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zain-tzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea, bai Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea onartzeak ondorio nabarmenak izan ditu gizarte zerbitzuen alorrean.

Zehazki, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak erantzukizun soziala duten gizarte-zerbitzuen sistema integratu bat ordenatu eta egituratzen du Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan, herritar guztiei gizarte-zerbitzuen euskal sistemako gizarte-zerbitzuak jasotzeko eskubide subjektiboa ziurtatzeko asmoz, prestazio edo zerbitzu bakoitzerako araututa dauden aipatutako sistemara sartzeko baldintza orokorren eta baldintza berezien barruan, eta horretarako:

22. artikuluan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen katalogoa definitzen du; horrek etxez etxeko laguntza zerbitzua barne hartzen du, eta zerbitzu horiek emateko eskumena udalei ematen die.

185/2015 Dekretuak, urriaren 6koak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoak, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea garatzen duenak, aipatutako eskubide subjektiboa zedarritzen du, Gizarte Zerbitzuen Legearen katalogoan zehazten diren baldintzak, irizpideak eta prestazioetarako eta zerbitzuetarako sarbidea erregulatuz.

Esandako aldaketa arauemaileez gain, errealitate sozialean ere bilakaera bat antzeman dezakegu: adinekoen hazkunde demografiko mailakaturia, bizi-itxaropena areagotzearen ondorioz, eta adin-piramidearen aldaketa gure gizartean. Familia-harremantean ere aldaketak izan dira, gizarte-zerbitzuen babes eta garapenerako agente gisa. Haiek dira bizitza oso bat izateko beharrezkoak diren zerbitzuak definitzea sustatzen ari diren faktore garrantzitsuenetako bat, are gehiago mendetasun maila altua duten edo babes sozialik gabe dauden pertsonen kasuan.

Pertsonen beren mendetasun mailakaturia laguntzeko zerbitzuak nola eman pentsatu eta zehazteko, lehentasunezkoa da pertsona horiek ahalik eta denbora gehien beren etxean geratzeko nahia kontuan hartzea, bizitza osoan zehar izan duten erreferentziazko sare soziala mantenduz. Alabaina, etxebizitzaren inguruak, sarbideak, komunitateak dituen laguntza-zerbitzuek eta abarrek beste alderdi asko kontuan hartzea eskatzen dute, eta mendetasuna duen pertsonaren bizitza garatzeko aukerak mugatzen dituzte.

Mendetasun egoeran edo mendetasun egoeran egoteko arriskuan dauden pertsonen arreta emateko behar horrekin batera, egoera sozial konplexuak sortzen ari dira. Izan ere, zaurgarritasun edo ahultasun sozialeko egoeran bizi diren familia batzuek, beren beharrezko oinarritzko arreta jaso dezaten, etxez etxeko laguntza behar dute.

Horrela, eguneroko bizitza jasangarriago egiteko, babes eta laguntza-zerbitzuak eskuragarri izateaz gain, zaurgarritasun edo ahultasun sozialeko egoerak jasaten dituzten edo mendetasun egoeran dauden pertsonen beren etxeetan eta komunitateetan haiek zaintzeko zerbitzua izatea ezinbestekoa da, askotariko beharrezkoetara egokitze eta denbora tarte ezberdinetan zatikatzeko gai izango dena, larrialdiak bere gain hartuko dituen eta zerbitzuaren beharretan eman litezkeen aldaketei bizkortasunez erantzun ahalko diona. Zentzu horretan, etxez etxeko laguntza Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari garrantzi estrategikoa duen zerbitzua da, elkarbizitzarako sostengua ematen baitio gizartearen eta familian. Izan ere, sostengu hori ezinbestekoa da pertsona askoren bizi-kalitateko eta lan-bizitza eta familia uztartzeko, emakumeen kasuan bereziki. Erabiltzaileek eta beren inguruak, familiak zein auzokideek aintzat hartzen duten zerbitzua da, eta pertsona askoren bizi-kalitatea bermatzen du (adinekoak, mendetasun egoeran dauden pertsonak, familiaren zama handia duten pertsonak).

Xede horretarako, araudi honek 2017. urtean Gipuzkoako udalen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean Gizarte Zerbitzuen Erakunde Arteko Mahaian adostutako itunak jasotzen ditu, honako gaien inguruan; intentsitate malguagoak, zerbitzua emateko aukera zehaztea urteko egun guztietan, izaera mugatua, larrialdietako sarbide mota finkatzea eta profil ezberdinetara sarbidea izatea.

Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren araudiak ez du Administrazio honetan laguntza pertsonalerako beste zerbitzu batzuk hasteko aukera alde batera uzten, bide berritzaileak izan daitezkeenak pertsonen eta beren bizitzarako beharrezkoen artean oreka bat izateko; betiere, eskumena duen organoaren oniritzia izanda.

Horrenbestez, udal-araudi honek udaleko etxez etxeko laguntza zerbitzurako sarbidea arautzen du, zerbitzura sartu nahi duten pertsonak balioetsi eta gero, behin zerbitzurako eskubidea aitortua izan zaienean eta arreta pertsonalizaturako plan bat landu denean.

LEHEN TITULUA

1. artikulua. Xedea.

Arautegi honen xedea da Ataungo udalerriko etxez etxeko laguntza zerbitzua arautzea.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

Arautegi honek arautzen duen zerbitzua Ataungo udalerrian emango da, udalak gizarte zerbitzuen esparruan dituen eskumenen baitan.

3. artikulua. Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren definizioa.

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua asistentzia eta prebentzio zerbitzu bat da, erabiltzaileei ahal bezain luzaro norberaren etxean bizitzen jarraitzeko laguntza ematean datzana;

horretarako, etxeko laguntza edo/eta laguntza pertsonala eskaintzen zaie, etxean moldatzeko eta beren komunitatean txertatzeko, bakartzea saihestuz.

4. artikulua. Etxez etxeko zerbitzuaren helburuak.

Zerbitzuak helburu hauek ditu:

- a) Autonomia galerari aurrea hartzea, autonomiari eustea edo/eta autonomia galera konpentsatzea. Horretarako, laguntza partziala edo/eta erabatekoa emango da norberaren zaintzarako eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko edo/eta eguneroko bizitzako jarduera instrumentaletarako.
- b) Erabiltzaileen segurtasun sentipena indartzea.
- c) Beste zerbitzu batzuen esku-hartzea eska lezaketen beharrianak antzematea.
- d) Erabiltzaileak beren komunitatean integra daitezen bultzatzea eta bakartze edo/eta bazterketa egoerak saihestea.
- e) Norberaren etxean ahalik eta luzaroen eta bizi kalitate egokiarekin bizi daitezen ahalbidetzea, ahal den heinean; horrela, atzeratu edo saihestu egingo da ostatu zerbitzuetan edo egoitzetan sartu beharra.
- f) Erabiltzaileari laguntzen dion familia-gizarte sareko zaintzaileei laguntzea, eta zaintzari loturik dituzten eginbeharrak neurri batean arintzea, baldintza egokiak izan ditzaitez beren garapen pertsonal, profesional eta sozialerako.
- g) Oro har, erabiltzaileaz arduratzen den zaintzaile nagusiaren ordez jardutea, tarteka, hura falta denean.
- h) Adingabeen zaintzan laguntzea, haien guraso edo tutoreek zaintza egokia ematerik ez dutenean.
- i) Hainbat faktore psiko-fisiko-sozialen ondorioz krisi egoeran dauden familien bizikidetza giroa hobetzea eta faktore horietatik eratorri ohi diren arriskuei aurrea hartzea.

BIGARREN TITULUA

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

I. KAPITULUA. ZERBITZUAREN BAITAKO ETA ZERBITZUAZ KANPOKO PRESTAZIOAK, ALDAERA ETA EZAUGARRIAK

5. artikulua. Zerbitzuaren baitako eta zerbitzuaz kanpoko prestazioak.

- 1) Informazioa: Erabiltzaileei beren eskubideei eta zerbitzuari buruzko informazio egokia eta nahikoa eskuratzeko aukera ematea, behar den denboraz eta behar den moduan.
- 2) Jarraipenaren balioespena: Arreta Pertsonalizatuko Planaren aldian aldiko ebaluazioak egitea, kasuan-kasuan dagokion sakontasunaz.
- 3) Etxeko laguntza: Erabiltzaileei eguneroko bizitzako jarduera instrumentalak egiteko laguntza partziala edo osoa eskaintzen dien prestazioa. Laguntza hori bereziki dagokie elikadurari, jantziei eta erabiltzailea bizi den etxeko instalazioen mantentze garbiketari, ongi antolatzen laguntzeko; prestazio honetan sartzen da, halaber, hala dagokionean, jarduera horiek gauzatzeko beharrezko trebetasunen lanketa.

3.1. Elikadurarekin loturikoak.

- Otorduak antolatzea eta prestatzea, horretarako erabilitako ontzi eta tresnak garbitzea eta jasotzea barne.
- Janaria erostea.
- Erabilitako ontziak eta tresnak garbitzea eta lehortzea.

3.2. Jantziekin loturikoak.

- Arropa etxean garbitzea.
- Arropa lehortzen jartzea.
- Arropa gainbegiratzea.
- Arropa antolatzea eta gordetzea.
- Arropa etxean lisatzea eta tolestea.
- Arropa erostea.
- Erabili beharreko elementu guztiak prestatzea eta jasotzea.

3.3. Etxeko instalazioak mantentzearekin loturikoak.

- Etxea txukuntzea.
- Gainaldeak produktu egokiekin garbitzea.
- Erabilitako elementuak garbitzea eta jasotzea.
- Hautsa kentzea.
- Zorua garbitzea eta xurgagailua pasatzea.

- Errezelak eta leihoak zabaltzea, etxea aireztatzea.
- Komuna garbitzea.
- Sukaldea garbitzea.
- Leihoetako kristalak garbitzea.
- Zaborra zaintzea eta ateratzea.
- Zerbitzua hasi aurretiko garbiketa orokorra.
- Jabekideen erkidegoko espazioak garbitzea.

- Ohea egitea eta oheko arropa aldatu eta arropa zikina kentzea.

4) Laguntza pertsonala: Erabiltzaileei honako jarduera hauek egiteko laguntza partziala edo osoa eskaintzen dien prestazioa:

a) Zaintza pertsonalarekin loturiko eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak, bereziki, ohetik altxatzea eta oheratzea, norberaren garbitasuna, batetik bestera joatea, jatea edo oinarrizko beste funtzio batzuk

b) Ingurunearekiko lotura ahalbidetzen duten jarduera instrumentalak, bereziki, komunikaziokoak (telefonoa erabiltzea, gutunak idaztea...) eta familiarengana eta komunitatearengana iristeko beharrezkoak. Barne sartzen da, hala dagokionean, jarduera horiek gauzatzeko beharrezko trebetasunen lanketa.

4.a. Zaintza pertsonalarekin loturiko beharrezko eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak, bereziki, ohetik altxatzea eta oheratzea, norberaren garbitasuna, jatea edo oinarrizko beste funtzio batzuk.

4.a.1. Mugikortasunarekin eta ingurunean moldatzearekin loturikoak:

— Ohetik altxatzeko, oheratzeko edo eserlekutik altxatzeko laguntza, lagungarri teknikoak baliatuta, halakorik balego.

— Etxean nahiz etxetik kanpo batetik bestera mugitzeko laguntza (komunera, gela batetik bestera, eskolara, garraiora, eguneko zentroetara, osasun etxeetara joateko laguntza), lagungarri teknikoak baliatuta, halakorik balego.

4.a.2. Garbitasun pertsonalarekin loturikoak:

Garbiketa eta higiene pertsonala (lagungarri teknikoak baliatuta, halakorik balego; azazkalak moztea, bizarra egitea, ilea garbitzea, azala hidratatzea eta arropak aldatzea).

4.a.3. Jatearekin loturikoak:

- Jateko laguntza.
- Edateko laguntza.
- Janaria berotzea.
- Erabilitako tresnak eta ontziak garbitzea eta jasotzea.

4.a.4. Jantziekin loturikoak:

- Janzteko eta eranzteko laguntza.
- Eguneroko arropa prestatzea.

4.b. Jarduera instrumentalak, ingurunearekiko lotura ahalbidetzen dutenak, bereziki, komunikaziokoak (telefonoa erabiltzea, gutunak idaztea...) eta familiarengana eta komunitatearengana iristeko beharrezkoak.

Oro har, aurreko egitekoekin lotura duten aurretiko jarduerak, egiteko horiek gauzatze-ko elementuak prestatzea edo/eta haietatik eratorritako jarduerak.

Bereziki, hala badagokio, edozein eginkizunetarako beharrezko trebetasunen lanketa.

4.b.1. Komunitatearekiko harremanarekin loturikoak:

Hurtzaindegi, ikastetxe, garraio, eguneko zentro, osasun etxe, komunitate-ekipamendu eta abarretara iristen laguntzea.

4.b.2. Ingurunearekiko komunikazioarekin loturikoak.

- Eskariak egiteko, gutunak jaso-tzeko, gutunen eta abarren edukia ulertzeko laguntza, etxean.
- Komunikazioa erraztea banketxeekin, osasun etxeekin; errekurtsioak izapidetzea; dokumentazioa eskatzea eta entregatzea, etab.

4.b.3. Osasunarekin loturikoak:

Medikuak agindutako botikak (ahotik hartzekoak) erostea, kontrolatzea eta behar bezala hartzen diren gainbegiratzea.

Medikuekiko hitzorduen kontrola eta jarraipena.

4.b.4. Zaintzarekin loturikoak:

Adingabeentzako zerbitzuetan, ingurune komunitarioan aritzeko laguntza eta adingabearen zaintza gauzatzean suertatzen diren bestelako egitekoak.

5) Gizarte laguntza: gizarte zerbitzuen berariazko zerbitzua, berezkoa, zeinaren bidez pertsonak aukera duten profesional kualifikatu batekin beren kasa hobeto moldatzeko eta gizarteratzeko laguntza harreman batean parte hartzeko.

Erabiltzaileari aukera ematen dio bere egoera aztertzeko, bere autonomia eta gizarteratze maila mantentzeko edo hura garatzeko buruz zer helburu dituen zehazteko eta helburu horiek betetzeko erreferentziako pertsona bat edukitzeko, zeinaren bidez ondorengo laguntza hauek jasoko dituen prozesuan zehar:

a) Instrumentala (baliabide eta beste sistema batzuetako zerbitzuetara nahiz laguntzako gizarte/familia sareetara –familia, lagunak, komunitatea– harreman sareetara iristeko informazioa, orientazioa eta bitartekaritza).

b) Emozionala (kaltea murriztea, sostengua, babes emozionala eta orientazioa krisi egoeretan...).

c) Hezkuntzako (eguneroko bizitzako eta gizarteratzea sustatzeko oinarriko jarduerak, jardura instrumentalak nahiz jardura aurreratuak egiteko trebetasunak hartzea, jokabideak aldatzea...).

d) Harremani loturikoa (entzute aktiboa, gizarte harremanak edo/eta harreman pertsonalak egiteko edo mantentzeko trebetasunak hartzea, harremanak egiteko aukerak sortzea).

Gizarte laguntzaren intentsitatea aldatu egin daiteke pertsonaren beharrezko arabera. Horrela, erabiltzailearen laguntza beharrezkoaren intentsitatea aldatzea ahalbidetuko duten ibilbideak planteatu litezke (betiere, kontuan harturik intentsitatea murriztea dela desiragarria).

6) Beste jardura osagarri edo ezohiko batzuk:

— Higiene arazo larriak dituzten etxeetako garbiketa orokorra.

— Higiene eta osasungarritasun arazo larriak dituzten etxeak hustea eta garbitzea.

— Egoera berezietan erantzunez, zerbitzuaren helburuak lortzeko ezinbesteko jotzen diren beste jardura batzuk gauzatu ahal izango dira, gizarte langintzako teknikariak hala proposatuz gero eta Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak jardura horiek berariaz baimenduz gero.

7) Zerbitzuaz kanpoko jarduerak:

Ondorengo jarduerak etxetik kanpoko laguntza zerbitzuetatik kanpoko jotzen dira:

— Etxebizitza berean bizi arren, udal zerbitzu teknikoek zerbitzuaren onuradun jotzen ez dituzten pertsonen laguntza pertsonala.

— Etxebizitza berean bizi arren, zerbitzuaren onuradun jotzen ez diren pertsonak zuzenean mesedetzen dituen etxeko laguntza.

— Prestakuntza espezifikoa eskatzen duten osasun arloko jarduerak, hala nola, indizioak jartzea, insulina edo heparina ematea, tentsioa hartzea, zundak eta zarakarrak tratatzea, ezagutza espezifikoa eskatzen duten botikak ematea eta horien antzerakoak.

— Etxean konponketa handiak egitea: margotzea, etab.

6. artikulua. Zerbitzuaren aldaera: atsedenerako zerbitzua.

Atsedenerako zerbitzua zaintzaile nagusiarentzat; mendekotasun egoeran edo egoera horretan egoteko arriskuan dagoen pertsona aldi batez EELZn sartuz edo zerbitzu horretan ordura arte eskaintzen zen laguntzaren intentsitatea aldi batez areagotuz.

7. artikulua. Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren ezaugarriak.

Etxez etxeko laguntza zerbitzua onuradunak lo egiten duen edo/eta eguna igarotzen duen tokian (ingurunean) emango da, Ataungo udalerrian.

1) Laguntza emateko egunak.

Oro har, urteko egun guztietan emango da zerbitzua, jarraibide teknikoaren arabera.

2) Zerbitzuaren intentsitatea.

Zerbitzuaren denbora mugak erabiltzaileen beharrezkoen banakako ebaluazioaren arabera zehaztuko dira. Gehienez ere, asteko hogeita zortzi orduko laguntza emango da. Gehieneko hori malgutasunez banatu ahal izango da, baldin eta profesionalen irizpideen arabera malgutasun hori beharrezkoa bada erabiltzaileak etxean jarraitzea errazten edo/eta ahalbidetzen duten zaintzak osatzeko edo/eta ordezkatzeko.

Orduak 15 minutu baino gutxiagokoak ez diren tarteetan banatuko dira, eta sarrera bakoitzean zerbitzuak gutxienez 30 minutuko iraupena izango du; fakturatutako ordu edo tarte bakoitza lanean egindako denborari dagokiola ulertuz.

3) Laguntzaren ordutegiak.

Zerbitzuaren ordutegia malgua da; nagusiki, 07:00etatik 22:00etarako ordutegiaren barruan emango da.

Nolanahi ere, zerbitzuaren ordutegia zabaldu egin ahal izango da, balioespen teknikoaren arabera, muga batzuen barruan.

— Laguntza pertsonalari dagokionez, udal teknikariek zehaztuko dute ordutegia, laguntza eskatzailearen ohiko ordutegiak eta beharrezkoak kontuan hartuta.

— Etxeko laguntzari eta gizarte laguntzari dagokien zerbitzuetarako, udal teknikariek zerbitzua ematen duen enpresarekin batera zehaztuko dute ordutegia, zerbitzu horiek ematen dituzten langileen ordutegien arabera.

II. KAPITULUA. ERABILTZAILEAK

8. artikulua. Erabiltzaileak zehaztea.

Oro har, ondorengo profila izango dute zerbitzu honen erabiltzaileek: autonomia galeraren edo ahultasun egoeraren ondorioz, norberaren etxebizitzan bizitzen jarraitu ahal izateko eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak egiteko laguntza –aldi batekoa nahiz iraunkorra– behar duten pertsonak edo/eta familiak.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 Dekretuak ezartzen duenari jarraituz, mendekotasun egoeran edo mendekotasuna jasateko arriskuan dauden pertsonen zuzendutako zerbitzua da etxez etxeko laguntza zerbitzua.

Honako pertsona edo/eta familia hauek ere izan daitezke etxez etxeko laguntza zerbitzuen erabiltzaileak:

— Beren kasa moldatzeko zailtasunak direla medio eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak edo/eta jardura instrumentalak gauzatzeko laguntza behar duten pertsonak.

— Familiak zaindu ezin dituzten edo behar duten zaintza eta arreta eman ezin dieten adingabeak.

— Zama astunegia, harreman gatazkatsuak, gizarte egoera egongaitzak edo/eta gaixotasun fisiko edo/eta psikikoen ondoriozko arazoak dituzten familiak edo pertsonak, eguneroko bizitzako jardueretarako laguntza partziala edo erabatekoa behar dutenak.

— Aldi bateko gaixotasun edo gaixotasun terminal batek jotako pertsonak, gaixotasunaren ondorioz eguneroko bizitzako jardueretarako beste norbaiten laguntza behar dutenak.

— Kasuaren arduradunaren iritziz eta haren irizpideei jarraituz zerbitzu honen arreta jasotzea dagokien pertsona edo/eta egoerak, Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak baimenduak.

Eskaria talde batek eginez gero, taldeko kide guztiek bete beharko dituzte zerbitzuan sartzeko baldintzak.

Zerbitzuaren titular bat izendatuko da, onuradun guztiak ordezkatzeko; titularra hil eginez gero, egoitza zentro batean sartuz gero edo bizitokia aldatuz gero, bizikidetzaren unitateko beste onuradun batek hartuko du titulartasuna.

Titulartasuna aldatzean, berriro ebaluatuko dira beharizanak, gizarte-familia egoera eta egoera ekonomikoa.

9. artikulua. Zerbitzuan sartzeko baldintzak.

Aurrez aipatutako talde horietako bateko kidea izateaz gainera, honako baldintza hauek bete beharko ditu eskatzaileak:

9.1. Baldintza administratiboak:

— Eskaria egiten den datan Ataungo udalerrian erroldatuta egotea, eta hartan erroldatuta jarraitzea. Teknikariek hala proposatuz gero, baldintza hau betetzetik salbuesita geldituko dira senitartekoen etxeetan txandaka bizi diren pertsonak.

9.2. Beharrianari buruzko baldintzak:

— Dagokion etxebizitzan bizitzea, izan hura norberarena nahiz zaintzaile nagusi gisa diharduen senitarteko batena.

— Etxebizitzaren edo ingurunearen egoerak ez eragozteko edo zailtze erabiltzailea han egotea eta ez jartzea arriskuan erabiltzailea nahiz etxez etxeko langileak.

— Hala behar izanez gero, etxebizitzan baldintza egokietan bizitzeko behar adina laguntza izatea, EELZren prestazioarekin batera.

— Osasun edo gizarte-osasun erakundeetan iraunkorki arreta jasotzea eskatzen duen osasun egoeran ez egotea.

— Gaixotasun infekzio-kutsakor edo buru gaixotasun bat izanez gero, uko ez egitea dagokion tratamendua hartzeari.

— Jokabide asaldurarik izanez gero, etxez etxeko langileentzako arriskutsua ez izatea.

10. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak.

Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 9. artikulua arabera, etxez etxeko laguntza zerbitzuaren erabiltzaileen eskubideak dira:

— EAeko hizkuntza ofizialetatik edozeinetan zerbitzua jasotzea.

— Zerbitzu ematea eta haren intentsitatea aldatzeko eskaria egitea.

— Zerbitzuaren baldintzen aldaketan berri aldeztatik jasotzea.

11. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak.

Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 19. artikuluan ezarritakoaz gainera, etxez etxeko laguntza zerbitzuaren erabiltzaileak behartuta egongo dira:

- Zerbitzuan parte hartzen duten profesionalen lana erraztera, haiek laguntzera eta zuzen eta errespetuz tratatzera.
 - Egoera sozio-ekonomikoa balioesteko beharrezko dokumentuak gizarte langileari ematera eta balioespena nahiz jarraipeneko bisitak egiteko etxean sartzen uztera.
 - Zerbitzua jaso bitartean gaixotasun infekzio-kutsakor bat harrapatuz gero, udal teknikariei horren berri ematera, etxez etxeko laguntzaileek hartu beharreko babes neurriak hartu ahal izan ditzaten.
 - Osasun egoerak hala eskatuz gero, behar den orotan joatea osasun erakundeetara.
 - Aurrez hitzartu gabeko inolako prestaziorik ez eskatzera, eta ez eskatzera, halaber, udal ebazpenak barne hartzen ez dituen pertsonentzako arreta.
 - Etxez etxeko zerbitzuko langileak zerbitzua ematen ari diren bitartean etxean egotera, bestelako berariazko baimenik eta agindu teknikorik ezean.
 - Zerbitzua etetea dakarten lekualdatzeen berri aldeztatik ematera.
 - Udal teknikariei behar adinako aurrerapenaz jakinaraztera eskaintzen den zerbitzua ematean inolako aldaketarik eragin lezaketan bat-bateko gorabehera pertsonalak.
 - Etxez etxeko langileen esku uztera esleitutako etxeko lanak egiteko eta laguntza pertsonala emateko beharrezko tresnak eta materialak.
 - Etxez etxeko langileek beren egitekoak behar bezala ez betez gero udal zerbitzu teknikoei irregulartasun horien berri ematera.
 - Dagokion epean ordaintzera emandako zerbitzu bakoitzari dagokion prezio publikoa/tasa, nahiz eskatzaileari egotz lekizkiokoen arrazoiak direla medio gauzatu gabe gelditutako zerbitzuei dagokiena, baita zerbitzua aldi batez eten izanaren ondorioz zerbitzuaren erreserbari dagokiona ere.
 - Udal zerbitzu teknikoei jakinaraztera bere egoera sozio-ekonomikoan gertatutako aldaketa adierazgarri oro.
 - Udal langile teknikoei jakitera ematera prezio publikoa/tasa ordaintzeko erabiliko den banku erakundea eta kontu korrontearen zenbakia.
 - Gipuzkoako Foru Aldundiari mendekotasunaren balioespena edo/eta ezgaitasunaren kalifikazioa egin dezan eskatzera.
- Betebehar horietakoren bat huts eginez gero, zerbitzua eteteko edo iraungitzeko prozedura abian jarriko da, arautegi honetan araututako prozedurarekin bat etorruta.

III. KAPITULUA. ZERBITZUAN SARTZEKO PROZEDURA

1. ATALA. Eskatzaileen zerrendan sartzea.

12. artikulua. Eskatzaileen zerrenda.

Zerbitzuaren eskatzaileen zerrenda da zerbitzua esleitzeko lehentasuna antolatzeko baliatuko den tresna. Lehentasuna, zerbitzuan sartzeari buruz I. eranskinean zehaztutako baremoa aplikatuz lorturiko puntuazioaren arabera finkatuko da.

13. artikulua. Zerbitzuaren eskatzaileen zerrendan sartzeko eskaria.

Arautegi honetan araututako etxez etxeko laguntza zerbitzuaren eskatzaileen zerrendan sartzeko, aldez aurretik eskaria egin behar dute interesdunek edo, hala dagokionean, bizikidetzaren unitateko kide guztiek, inprimaki formalizatua erabiliz. Ondoren, organo eskumendunari helaraziko zaio inprimakia, eskatzaileak sinatuta. Udalak xede horretarako berariaz gaitutako erregistroetan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako moduan edo erregistroetan aurkeztu beharko da eskaria.

Interesdunak prozesuaren edozein unetan bertan behera utzi dezake eskaria, idatziz. Hala egingez gero, artxibatu egingo da espedientea.

Era berean, gizarte langileak txostena egin ahal izango du espedientea artxibatzeke, baldin eta eskatzaileak edo haren ordezkariak hitzez adierazten badu eskaria bertan behera utzi nahi duela.

14. artikulua. Eskariarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Eskariekin batera, honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

- a) NANaren fotokopia, edo beste edozein nortasun agiri baliokiderena.
- b) Familia liburua, baldin eta bizikidetzaren unitatean 18 urtetik beherako adingaberik badago.
- c) Mendekotasun edo/eta ezgaitasunen balioespena, baldin eta beste autonomia erkidego batean egina bada eta espedientea oraindik Gipuzkoako Foru Aldundira aldatu gabe badago.
- d) Medikuntza txostena, gizarte zerbitzuek beharrezkoa dela iritziz gero.
- e) Zaintzaren onuraduna adingabea edo ezgaitasuna duen pertsona bat izanez gero, legez edo izatez, ordezkariaren egiaztatpena (adingabeak badira: familia liburua, gurasoen eta seme-alaben arteko neurrien edo tutorearen izendapenaren dokumentua; ezgaitasuna duten pertsonak badira: tutorearen izendapenaren ebazpena edo izatezko zaintzailearen dokumentua, ereduari jarraituz egina).
- f) Egoera ekonomikoari buruzko datuak (zerbitzuaren onuradun diren pertsona guztiei dagokien dokumentazioa).

— Eskaria egin aurreko lau urteei buruzko ondasun higigarrien eta higiezin zinkeko aitortza.

— Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zergaren azken aitortenaren fotokopia, edo, bestela, Ogasunaren ziurtagiria, eskatzaileak aitortpena egiteko derrigortasunik ez duela egiaztatzen duena (ez da agiri hori aurkeztu beharrik izango aitortutako azken ekitaldian Gipuzkoako zergaduna izanez gero).

— Eskaria egiteko unean edozein kontzepturengatik jasotzen ari diren diru sarreren egiaztatzea: pentsioak eta gizarte aurreikuspeneko prestazio publiko, pribatu nahiz atzerrikoak, nominak, enpresa jardueren etekinak, etab.

— Kapital higiezin etekinengatik diru sarreren ziurtagiria, halako etekinik balego.

— Banku posizio eguneratuen eta kapital higigarriaren etekinen ziurtagiria.

— Gipuzkoako lurraldetik kanpoko jabetzen katastro balioaren eta titulartasunaren egiaztatzea.

— Ezarritako prezioari dagokion hileko ekarpena ordaintzeko erabiliko den banku erakundea eta kontu korrontearen zenbakia.

— Udaleko gizarte zerbitzuek interesekotzat jotzen duten beste edozein dokumentazio.

Eskatzaileak bere egoera balioesterik nahi ez badu edo modu frogagarrian egiaztatzen ez badu, ulertuko da uko egiten diela itxaron zerrenda –halakorik balego– osatzeko baremoan bere egoera ekonomikoa kontuan hartzeari, baita zerbitzua ordaintzeko eskaintzen diren laguntzei ere. Hala, zerbitzua jasotzeko ezarritako gehieneko tarifa ordaintzera behartuta egongo da.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 8.3 artikulua aplikatuz, herritarrak salbuetsita daude aurreko agiriak aurkeztetik, baldin eta administrazioaren esku badaude. Xede horretarako, dagokion agiria noiz eta zer organoren aurrean aurkeztu zituzten adierazi beharko dute interesdunek. Udalak agiri horiek eskuratu ezin izanez gero, berriro eskatu ahal izango diote interesdunari horiek aurkezteko.

Eskariarekin batera aurkeztutako dokumentazioa osatugabea bada edo akatsen bat badago, eskatzaileari 10 eguneko epea emango zaio dokumentazioa osatzeko edo antzemandako akatsak zuzentzeko. Hala egiten ez badu, eskariari uko egin diola ulertuko da.

Eskatzaileak eta, hala badagokio, bizikidetzaren unitateko gainerako kideek baimena ematen diote udalari datuak egiaztatzeari edo dagozkion datuak biltzeari begira egin beharreko izapideak egiteko. Arautegi honetan ezarritako baldintzak betetzen diren egiaztatzeko eta, hala dagokionean, zerbitzua finantzatzeko baldintza eta baliabide ekonomikoak egiaztatzeko besterik ezingo dira erabili datu horiek.

Datuak faltsutzeak eta ezkutitzeak zerbitzuaren eskatzaileak eskatzaile izaera galtzea ekarriko dute, horregatik egotz lekizkiokeen beste erantzukizun batzuen kalterik gabe.

15. artikulua. Izapidetzea.

Erabiltzaileen beharrianen ebaluazioa eta gizarte txosten-proposamena egiteko, Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legean bildutako zehaztapenak hartuko dira kontuan.

A) Beharrianen ebaluazioa.

— Balioespena eta ebazpen proposamena eskatzailearen etxebizitzari (edo, hala dagokionean, txandakako etxebizitzari) dagozkion udaleko gizarte zerbitzuetako gizarte langintzako teknikariek egingo dituzte.

— Langile teknikoek dokumentazioa aztertuko dute, eta elkarrizketak, etxeko bisitak eta egoera bakoitzean zer beharrian dauden balioesteko egin beharreko izapide guztiak egingo dituzte.

B) Gizarte txosten-proposamena.

Gizarte langintzako zerbitzu teknikoek arauzko gizarte txosten bat egingo dute, honako alderdi hauei buruz:

— Zerbitzuan sartzeko baldintzak betetzea eta eskaria aurkeztea.

— Hala dagokionean, baldintzak betetzetik salbuesteko proposamen arrazoitua.

— Eskatzailearen eta, hala dagokionean, bizikidetzaren unitatearen egoera pertsonal, familiar eta sozialak.

— Esku-hartzearen onuradunak, emango den zerbitzu mota, asteko ordu kopurua eta egunak, proposatzen den zerbitzuak barne hartzen dituen egitekoak eta haren iraupena.

— Hala dagokionean, ezohiko zerbitzuak emateko proposamen arrazoitua.

— Eskatzaileak zerbitzua jasotzeko ordaindu beharreko orduko prezioa.

— Hala dagokionean, zerbitzua ukatzeko proposamen arrazoitua.

16. artikulua. Ebazpena.

Eskaria aztertu eta balioespena egin ondoren, udaleko organo eskumendunari helaraziko zaio, hark ebazpen arrazoitua eman dezan; ebazpen horretan, eskatutako zerbitzuan sartzeari onetsi edo ezetsiko da.

Ebazpena emateko bi hilabeteko gehieneko epea dago eskaria udal erregistroren batean sartzen denetik kontatzen hasita. Epe hori eten egingo da eskarien akatsak zuzentzea

eskatuz gero; jakinarazpena egiten denetik eskatutakoa betetzen denera bitartean iraungo du etenaldiak, edo, hala badagokio, emandako epea igarotzen denean, edo Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzailearen autonomia balioesteko txostena eskatu behar zaionean, bestela, baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22. artikuluan aurreikusitako gainerako egoeretan ere.

Aurreko atalean aurreikusitako epean berariazko ebazpenik eman ez bada, eta ebazpena emateko derrigortasunaren kalterik gabe, eskaria ezetsi dela ulertu ahal izango da, eta interesdunak aukera izango du aukerako berraztertze errekurtsoa edo administrazioarekiko auzi errekurtsoa ezartzeko.

Ebazpen positiboa izanez gero, honako alderdi hauek adierazi behar ditu:

— Eskaria zerbitzu eskatzaileen zerrendan sartzea.

— Prestazioaren onespena, honako hauek zehaztuz: zerbitzuaren iraupena, mota, intentsitatea eta kostua, baita onuradunari dagokion ekarpen ekonomikoa ere.

Ebazpen negatiboa izanez gero, eskaria ezesteko arrazoiak azaldu beharko ditu, eta honako kasu hauetan izango da bidezkoa:

— Arautegi honetako 9. artikuluan zerbitzuan sartzeari buruz adierazitako baldintzak ez betetzea.

— Eskatzaileak, bere kasa edo/eta senitarteko edo/eta beste baliabide pertsonalen bidez behar bezala estali ahal izatea eskarian argudiatutako beharrak.

— Zerbitzua emateko eskumena beste administrazio publiko batena izatea, prestazio motagatik edo eskatzailearen bizitokia kokatuta dagoen tokiagatik.

— Zerbitzua emateak erabiltzaileari nahiz zerbitzua ematen duten langileei arrisku fisikoak edo/eta psikikoak ekar diezazkiokeela balioestea.

— Behar bezala argudiatutako beste arrazoi batzuk.

Ezespenezko ebazpena legez ezarritako epeetan eta formalitateak betez jakinarazi beharko da, eta aukerako berraztertze errekurtsoa ezarri ahal izango da haren kontra organo eskumendunaren aurrean, baita zuzenean haren aurka egin ere, administrazioarekiko auzien jurisdikzio ordenaren aurrean, legez ezarritako epe eta baldintzetan.

Onespenezko ebazpena zerbitzua ematen duen erakundeari ere helaraziko zaio, hark ebazitakoa betetzen has dadin jakinarazpenetik 7 egun naturaleko epearen barruan.

17. artikulua. Premiazko egoerak.

Aparteko izaeraz, premia larri edo muturreko premia duten kasuei erantzuteko, prestazioa berehala ematen hastea proposatuko dute udaleko gizarte zerbitzuek.

Udaleko gizarte zerbitzuek zerbitzua ematen duen erakundeari jakinaraziko diote zerbitzuaren premiazko izaera, eta jakinarazpena jasotzen duenetik 24 orduko epearen barruan zerbitzua gauzatzen hasiko da erakunde hori.

15 egun naturaleko epean, gehienez ere, premiazko eskaritzat hartutako eskaria ohiko prozeduraren arabera izapidetuko da.

2. ATALA. Zerbitzuaren onespina eta zerbitzurako sarbidea

18. artikulua. Zerbitzuaren onespina.

I. eranskinean adierazitakoaren arabera jasoko da zerbitzuaren onespina.

IV. KAPITULUA. ZERBITZUAREN EGOKITZAPENA ETA JARRAIPENA

19. artikulua. Jarraipena eta ebaluazioa.

Gizarte langintzako teknikariek jarraipen iraunkorra egingo dute zerbitzuak onuradunen beharrekiko duen egokitasunari buruz; jarraipen horren bidez, dagozkien aldatetak proposatuko dituzte, eta proposatutako helburuak lortzen ari diren ebaluatuko dute onuradunekin lankidetzan. Jarraipena egiteko, egoki irizten zaionean onuradunaren etxera bisitak egitea eta aldian-aldian etxex etxeko laguntzaileekin harremana izatea aurreikusten da.

Aldizkako ebaluazioak egin ahal izango dira, onuradunak hala eskatuta, zerbitzua ematen duen erakundeak hala eskatuta nahiz protokolo eta kontratuetan ezarritako moduan.

20. artikulua. Egokitzaipena.

Zerbitzuan sartu ondorengo hiru hilabeteak erabiltzaileak zerbitzuaren ezaugarri eta funtzionamendura egokitzeko alditzat hartuko dira. Erabiltzailearen erreferentziazko gizarte langileek edo/eta zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresetako profesionalek etengabe izango dute harremana erabiltzailearekin, gorabeheraren bat sortuz gero egokitzaipena lortzeko bilatu beharreko konponbideak bilatzeko.

Harekin batera irtenbideak bilatzen saiatu arren erabiltzailea zerbitzura edo zerbitzua erabiltzaileraren egokitzeko zailtasunak daudela edo zerbitzuak erabiltzailearen beharrak behar bezala estaltzen ez dituela ikusiz gero, udaleko gizarte zerbitzuek proposamen bat egingo dute, zerbitzuari dagozkion langile teknikoek edo/eta zerbitzua kudeatzen duen enpresak aurrez egindako txostena kontuan hartuta.

Proposamen hori erabiltzaileari helaraziko zaio, eta 15 eguneko tartea emango zaio alegazioak aurkezteko.

Udaleko gizarte zerbitzuek, alegazioak aztertu ondoren, behin betiko proposamena egingo diote organo eskumendunari, hark ebazpen arrazoitua eman dezan. Erabiltzailea zerbitzutik ateratzea ebatziz gero, beste bide bat eskainiko zaio, halakorik balego.

V. KAPITULUA. ZERBITZUA ETETEA ETA IRAUNGITZEA

21. artikulua. Zerbitzua etetea eta iraungitzea.

21.1. Zerbitzua aldi batez etetea.

Dagokion espedientea bideratu ondoren, organo eskumendunak ebazpena eman eta udaleko gizarte zerbitzuek hala proposatuta, zerbitzua aldi batez etetea erabakiko da, interesdunak esateko duena entzun eta gero. Erabiltzaileari eta, hala dagokionean, zerbitzua ematen duen erakundeari emango zaie ebazpen horren berri, legeak ezarritako epe eta baldintzak beteta.

Arrazoi hauengatik etengo da etxez etxeko laguntza zerbitzua:

— 10. artikuluan erabiltzaileei ezarritako betebeharren batean huts eginez gero, hutsegite hori zerbitzua iraungitzeko arrazoia ez bada. Ofizioz abian jarriko da etena.

— 9. artikuluan ezarritako baldintzetakoren bat aldi baterako galduz gero. Ofizioz nahiz erabiltzaileak hala eskatuta abian jarriko da etena.

— Ezusteko arrazoiak direla medio erabiltzailea etxean ez badago, honako egoera hauetan, esaterako:

1. Erabiltzailea erietxean ingresatzea.
2. Erabiltzailea gizarte-osasun baliabideetan sartzea.
3. Medikuarengana edo/eta tratamendua hartzera joan behar izatea.
4. Senitartekoen etxeetan txandaka bizi izatearen ondorioz beste etxebizitza batera joan behar izatea.

Erabiltzaileak hala eskatuta abian jarriko da etena.

Etenaldia 3 hilabetekoa izango da, gehienez ere.

— 45 eguneko gehieneko aldian, honako egoera hauetan:

— Oporraldia.

— Etxeko laguntza eskatzea eragin zuten egoerak aldatzea eta laguntza behar izateko arrazoia desagertzea.

Erabiltzaileak hala eskatuta abian jarriko da etena.

Profesionalen aburuz egokia izanez gero, luzatu egin ahal izango dira epe horiek.

Zerbitzua eteteko arrazoia erabiltzailea etxean ez egotea bada eta zerbitzua eteteko finkatutako epea igarota erabiltzailea etxera itzultzen ez bada, zerbitzua iraungi egingo da.

21.2. Zerbitzua iraungitzea.

Dagokion espedientea bideratu ondoren, organo eskumendunak ebazpena eman eta udaleko gizarte zerbitzuek hala proposatuta, zerbitzuaren bajak zehaztuko dira, interesdunak esateko duena entzun eta gero. Onuradunari eta zerbitzu emaileari emango zaie ebazpen horren berri.

Arrazoi hauengatik iraungiko da etxez etxeko laguntza zerbitzua:

— Erabiltzaileak uko egitea.

— Zerbitzua emateko aurreikusitako epea amaitzea.

— Erabiltzailearen heriotza.

— Erabiltzailea beste udalerrri batera lekualdatzea, senitartekoen etxeetan txandaka bizi denean izan ezik.

— Erabiltzailea beste baliabide edo programa batean sartzea.

— Zerbitzua emateko arrazoia desagertzea.

— Zerbitzua emateko kontuan hartu beharreko datuak ezkutatzea edo faltsutzea.

— Zerbitzuan sartzeko eskatutako baldintzaren bat betetzeari uztea.

— Zerbitzuaren jarraipenerako eskatutako dokumentazioa ez ematea.

— Egoera sozio-ekonomikoan aldaketaren bat gertatuz gero 30 eguneko epean horren berri ez ematea.

— Kasuaren arabera finkatutako aldi baterako etenaren epea amaitutakoan etxebizitzara ez itzultzea.

- Zerbitzua ematen duten langileei eraso fisiko edo psikologikoa egitea.
- Arautegi honetan ezarritako erabiltzaileen betebeharrak behin eta berriz huts egitea.
- Bizikidetzaren unitateko kideen eta gizarte langintzako teknikarien edo zerbitzua ematen duten langileen arteko lankidetzarik eza. Arrazoi hau argudiatzeko, alde aurreko balioespena egin behar dute gizarte zerbitzuek.
- Erabiltzailearentzat nahiz zerbitzua ematen duten langileentzat arrisku fisikoak eta/edo psikikoak egotea. Arrazoi hau argudiatzeko, alde aurreko balioespena egin behar dute gizarte zerbitzuek.

Zerbitzua iraungitzeko ebazpena jaso ondoren erabiltzaileak berriro zerbitzua jaso nahi izanez gero, beste eskari bat egin beharko du, eta arautegi honetan zehaztutako moduan izapidetuko da.

Zerbitzua iraungiz gero erabiltzaileak zerbitzuari dagokion ordainketaren bat egin gabe edukiz gero, berriro zerbitzua eman aurretik ordaintzea eskatuko zaio.

VI. KAPITULUA. ZERBITZUAREN ARAUBIDE EKONOMIKOA

22. artikulua. Prezio publikoa.

Zerbitzuaren enpresa esleipendunak kobratuko dituen prezioak etxez etxeko laguntza zerbitzua esleitzean zehaztuko dira. Organo eskumendunak urtero eguneratuko ditu prezioak, hala dagokionean, zerbitzua esleitzeko baldintzetan zehaztutako igoeren arabera.

Ez zerbitzua ematen duten langileek, ez enpresa esleipendunak, ezingo dute onartu inolako dohaintza edo ordainketa gehigarriak, aurreko paragrafoan ezarritakotik kanpo. Enpresa esleipendunaren ardura izango da baldintza hori betetzen dela zaintzea.

Aurreko ataletan ezarritakoari jarraituz erabiltzaileak ordaindu beharreko etxez etxeko zerbitzuaren prezioa unean-unean horri buruz indarrean dagoen udal arautegiaren arabera zehaztuko da.

23. artikulua. Finantzaketa.

Zerbitzuak honela finantzatuko dira:

— Onuradunak zerbitzua finantzatzen parte hartu beharko du. Hain zuzen ere, bere gain hartu behar du bere ahalmen ekonomikoa kontuan hartuta organo eskumendunak emandako ebazpenean ezarritako zenbatekoari dagokion ekarpena ordaintzeko konpromiso sinatua. Nahitaezko betebeharra izango da zerbitzua ematen hasteko.

— Ataungo udalak ordainduko du orduko prezioaren zenbatekoa, onuradunak ordaindu beharreko orduko ekarpena kenduta. Onuradunak ordaindu beharreko ekarpena 24. artikulua, II. eranskinean zehaztutako ekarpenen baremoaren eta arlo honi buruz indarrean dagoen udal arautegiak dioenaren arabera kalkulatuko da.

24. artikulua. Zerbitzuaren erabiltzailearen ekarpena.

Arautegi honetan araututako zerbitzuen erabiltzaileek zerbitzuaren kostuaren ehuneko bat ordaindu beharko dute; ehuneko hori kalkulatzeko, beren ahalmen ekonomikoa kontuan hartuko da, II. eranskinak eta arlo honi buruz indarrean dagoen udal arautegiak diotenaren arabera.

Erabiltzaileen ekarpena elementu horien arabera finkatuko da, II. eranskinean eta gai honi buruz indarrean dagoen udal arautegian zehaztutakoari jarraituz.

Ahalmen ekonomikoari buruzko datuak faltsutu edo ezkutatu gero, artxibatu egingo da zerbitzua jasotzeko eskaria, edo, erabiltzailea alde aurretik laguntza jasotzen ari bazen, iraungi egingo da zerbitzua, gertaera horietatik erator litezkeen erantzukizunen kalterik gabe. Udalak prezioa ordaintzeko laguntzaren bat edo hobariren bat eman badio erabiltzaileari, diru laguntzak banatzeari buruzko udal ordenantzan diru laguntzak itzultzeko araututako prozedura abian jarriko da.

Zerbitzuen erabiltzaileak eta, hala dagokionean, haien legezko ordezkariak behartuta daude familia unitatearen errentan, ondarean edo kideen kopuruan gertatutako aldaketak edo banakako ekarpenak zehaztean eragina izan dezakeen edozein gorabehera udalari jakinaraztera, 30 eguneko epean. Horren ondoriozko aldaketa ekonomikoek hurrengo hilabetean izango dute eragina.

Erabiltzaile bakoitzari dagokion banakako ekarpenak aldatzea eragin lezakeen aldaketaren bat gertatuz gero erabiltzailearen baldintzetan edo egoeran, ofizioz berrikusiko da ekarpena, udal zerbitzu teknikoek edo erabiltzaileak nahiz haren ordezkariak hala eskatuta, horri buruzko udal arautegian ezarritako moduan.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

Etkez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren bidez, erabiltzaileek beren etxe eta ingurune komunitarioan jarraitzeari begirako esperientzia/jarduera/prestazio berri eta berritzaileak abian jarri ahal izango dira.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Arautegiaren laburpen bat prestatuko da, erabiltzaileei banatzeko.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Arautegi hau etkez etxeko laguntza zerbitzua jasotzeko eskari berri guztiei aplikatuko zaie.

XEDAPEN INDARGETZAILEA

Indargabe gelditzen dira arautegi honetan xedatutakoarekin kontraesanean dauden edo haiei kontra egiten dieten maila bereko nahiz apalagoko arau guztiak.

AMAIERAKO LEHEN XEDAPENA

Alkatetzari ahalmena ematen zaio arautegi hau aplikatu eta garatzeko eman beharreko arauak eman ditzan.

AMAIERAKO BIGARREN XEDAPENA

Arautegi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hamabost egunera sartuko da indarrean.

I. ERANSKINA

ZERBITZUAN SARTZEKO BAREMOA

Sartzeko baremoak eskatzaileen zerrenda ordenatzeko irizpideak eta diagnostiko sozialaren arabera zerbitzurako sarbidea izateko lehentasunak finkatzen ditu.

Zerbitzuan sartzeko baremoari dagokionean, eskatutako zerbitzuak pertsona bati baino gehiagori eragiten badie, laguntza beharizan handiena duen eskatzailearen egoera baino ez da aztertuko, egoera ekonomikoaren alderdiari dagokionez izan ezik; hain zuzen ere, egoera ekonomikoa zehazteko, bizikidetza unitateko kide guztien per capita errenta kontuan hartuko da.

BAREMOAREN EGITURA / ESTRUCTURA DEL BAREMO

<i>Alderdiak / Dimensiones</i>	<i>Puntuazio tarteak/ Intervalos de puntuación</i>
Eguneroko bizitzako jarduerak egiteko laguntza beharra (Oinarrizko jarduerak) / Necesidad de apoyos para la realización de las actividades de vida diaria (Básicas)	0-30
Eguneroko bizitzako jarduerak egiteko laguntza beharra (Jarduera instrumentalak) / Necesidad de apoyos para la realización de las actividades de la vida diaria (Instrumentales)	0-10
Bizikidetza eta gizarte sostengua / Situación de convivencia y apoyo social	0-20
Etxebizitza edo bizitokia / Situación de la vivienda o alojamiento	0-10
Egoera ekonomikoa / Situación económica	0-30
Guztira / Total	0-100

I. Eguneroko bizitzako jarduerak egiteko laguntza beharra (oinarrizko jarduerak).

Pertsonak beren autonomia maila mantentzeki eta sustatzeki eta beren ohiko ingurunean bizi kalitate onarekin bizitzen jarraitzeki begira eguneroko bizitzako oinarrizko jardueretarako (jan, jantzi, norberaren garbitasuna...) behar duten laguntzaren zenbaterainokoa balioestea da xedea.

Balioespen horretarako, MBBn lortutako puntuazioa erabiliko da, jarraian adierazten den moduan:

<i>Laguntza behararen baremoa</i>	<i>Puntuak</i>	
Balioetsi ezinezkoak	0	<input type="checkbox"/>
MBB 0-22 puntu	5	<input type="checkbox"/>
MBB 23-49	10	<input type="checkbox"/>
MBB 50-74	20	<input type="checkbox"/>

<i>Laguntza beharraren baremoa</i>	<i>Puntuak</i>	
MBB 75-100	30	<input type="checkbox"/>
EGUNEROKO BIZITZAKO JARDUERETARAKO LAGUNTZA BEHARRAREN PUNTUAZIOA (OINARRIZKO JARDUERAK) (30 puntu gehienez)		

II. Eguneroko bizitzako jarduerak egiteko laguntza beharra (jarduera instrumentalak).

Pertsonak beren autonomia maila mantentzeki eta sustatzeki eta beren ohiko ingurunean bizi kalitate onarekin bizitzen jarraitzeki begira eguneroko bizitzako jarduera instrumentalak egiteko (etxetresna elektrikoak erabili, erosketak egin...) behar duten laguntzaren zenbaterainokoa balioestea da xedea.

Baremo hau erabiliko da balioespena egiteko:

<i>Jarduera instrumentalaren baremoa</i>	<i>Puntuak</i>	
Etxetresna elektrikoak (garbigailua, mikrouhin labea, sukaldea, berogailua...) eta interkomunikazioko sistemak (irratia, telefonoa, telebista) erabiltzea.	BAI: 0	<input type="checkbox"/>
	EZ: 1	<input type="checkbox"/>
Etxeko lanak (hautsa kentzea, erratza pasatzea, ontziak garbitzea, ohea egitea, oheko arropa aldatzea, xurgagailua, lisatzea...).	BAI: 0	<input type="checkbox"/>
	EZ: 1	<input type="checkbox"/>
Erosketak (elikagaiak, botikak, arropa, etxetresna elektrikoak...).	BAI: 0	<input type="checkbox"/>
	EZ: 1	<input type="checkbox"/>
Jana prestatzea (otorduak prestatzea, prestatutako jana berotzea).	BAI: 0	<input type="checkbox"/>
	EZ: 1	<input type="checkbox"/>
Ingurunean moldatzea (garraio publikoa erabiltzea, herrian egunez/gauez ongi orientatzea).	BAI: 0	<input type="checkbox"/>
	EZ: 3	<input type="checkbox"/>
Izapide ekonomiko-administratiboak eta osasunekoak (dirua ateratzea, ordainagiriak moldatzea, medikuarenera joatea...).	BAI: 0	<input type="checkbox"/>
	EZ: 3	<input type="checkbox"/>
EGUNEROKO BIZITZAKO JARDUERETARAKO LAGUNTZA BEHARRAREN PUNTUAZIOA (JARDUERA INSTRUMENTALAK) (10 puntu gehienez)		

II. Bizikidetzaren eta gizarte sostengua.

Pertsonak bere beharrianak betetzeko duen laguntzaren zenbaterainokoa balioestea da xedea, eta honako aldagai hauen arabera egiten da balioespena:

— Bizikidetzaren egoera: Bakarrik edo norbaitekin bizi den. Adineko beste bizikide batzuekin (senitarteko edo lagunekin) edo bestelako senitarteko edo lagunekin bizi den.

— Sare informalki baduen ala ez, eta, edukiz gero, sare horretaz baliatzeko dituen aukerak (senitarteko edo/eta lagunak), eta sare horrek zer laguntza mota ematen dituen.

Baremo hau erabiliko da balioespena egiteko:

Gizarte-familiaren baremoa	Puntuak	
1.- Bakarrik edo beste norbaitekin bizi den pertsona edo adingabea, babesgabetasun/bertan behera uzte egoeran dagoena: tratu txar fisiko edo psikikoak, abusu ekonomikoa, bertan behera utzita edo oinarritzko arretako zabarkeria larriko egoera.	20	<input type="checkbox"/>
2.- Bakarrik edo beste norbaitekin bizi den pertsona, familia edo/eta gizarte laguntzarik gabea: ez duelako familia edo gizarte ingururik, ohiko zaintzaileak arrazoi objektiboak direla medio arretarik ematerik ez duelako, edo familia gatazka edo/eta desestrukturazio larria dagoelako. / Arrisku egoeran dauden adingabeak dituzten familiak.	16	<input type="checkbox"/>
3.- Bakarrik bizi den pertsona, familia edo/eta gizarte sare oso murrizta izanik bere laguntza beharra estaltzeko inola ere aski ez diren aldian aldiko laguntza batzuk lortzen dituen. / Zama handia duten edo gizarte egoera egongaitzean dauden familiak.	12	<input type="checkbox"/>
4 - Bakarrik bizi den pertsona (edo mendekotasuna/ezgaitasuna duen norbaitekin bizi dena), familia edo/eta gizarte sareak laguntza batzuk ematen dizkion arren harengandik behar adinako laguntzarik jasotzen ez duena.	8	<input type="checkbox"/>
5 - Beste norbaitekin (mendekotasuna duen norbaitekin) bizi den pertsona, familia edo/eta gizarte sarea eduki arren harengandik behar adinako laguntzarik jasotzen ez duena.	4	<input type="checkbox"/>
6 - Bakarrik edo beste norbaitekin bizi den pertsona, erraz baliatzeko moduko familia edo/eta gizarte sarea duena.	0	<input type="checkbox"/>
GIZARTE-FAMILIA EGOERAREN PUNTUAZIOA (20 puntu gehienez)		

IV. Etxebizitzaren edo bizitokiaren egoera.

Etxebizitzaren edo bizitokiaren ezaugarrien balioespena egitean datza, ikusteko zenbateraino baldintza dezaketen pertsona bere kasa moldatzea, ingurunearen kontrola, aukeratzeko ahalmena eta ingurune horretan laguntza edo/eta sostengua jasotzeko aukera.

Irisingarritasuna, bizigarritasuna eta ekipamendua dira kontuan hartzen diren aldagaiak, honako baremo honen arabera:

Etxebizitzaren edo bizitokiaren baremoa		
IRISGARRITASUNA		
A. Eraikina, kanpotik	➤ Ez du irisingarritasun arazorik.	0
	➤ Eskailerak igo edo jaitsi edo arkitektura oztoporen bat gainditu behar du etxebizitzara iristeko // Herrigunetik urrun dago, eta oinarritzko baliabideetara iristeko zailtasuna du.	1
B. Eraikina, barrutik	➤ Ez du irisingarritasun arazorik.	0
	➤ Eskailerak daude atarian, igogailura edo etxebizitzara iristeko, eta ez dago horiek saihesteko sistemarik // Ez du igogailurik.	1
C. Etxebizitza, barrutik	➤ Ez dago arkitektura-oztoporik.	0
	➤ Mugitzeko eta moldatzeko zailtasuna dakarten arkitektura-oztopoak daude, ez du segurtasun edo/eta egokitzapen neurririk.	2
IRISGARRITASUNA, GUZTIRA (A+ B+ C)		
BIZIGARRITASUNA		
➤ Ez du bizigarritasun arazorik.		0
➤ Mantentze egokia falta du.		1

➤ Egiturazko arazoak ditu (hezetasuna, komunik ez, sukalderik ez; espazio aski ez; itokinak; instalazio elektriko eta sanitario kaskarra).		3
BIZIGARRITASUNA, GUZTIRA		
EKIPAMENDUA		
	BADAGO	BADABIL
Sukaldea	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Ur berogailua/termoa/galdara	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Berogailua	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Garbigailua	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Hozkailua	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Telefonoa	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
➤ Oinarrizko ekipamenduari dagozkion elementu guztiak ditu, eta ongi dabilza.		0
➤ Oinarrizko ekipamenduari dagozkion 4 elementu ditu, gutxienez, edo elementu guztiak izan arren baten bat ez dabil, baina konpontzeko aukera dago.		1
➤ Oinarrizko ekipamenduari dagozkion 4 elementu baino gutxiago ditu, eta/edo baten bat ez dabil eta ez dago erabiltzaileak konpontzeko edo berrezartzeko aukerarik.		3
EKIPAMENDUA, GUZTIRA		
ETXEBIZITZAREN EGOERAREN PUNTUAZIOA (10 puntu gehienez)		

V. Egoera ekonomikoa.

Egoera ekonomikoa balioesteko, errenta hartuko da kontuan. Lanbide arteko gutxieneko errentaren % 230etik behera, diru sarreren 10. maila bereizten dira, puntu gehienekotik hasi eta puntu gutxienez:

Egoera ekonomikoaren baremoa. Per capita errenta	Puntuak	
≤% 75 LAGS	30	<input type="checkbox"/>
>% 75-78	27	<input type="checkbox"/>
>% 78-81	24	<input type="checkbox"/>
>% 81-94	21	<input type="checkbox"/>
>% 94-110	18	<input type="checkbox"/>
>% 110-125	15	<input type="checkbox"/>
>% 125-140	12	<input type="checkbox"/>
>% 140-155	9	<input type="checkbox"/>
>% 155-170	6	<input type="checkbox"/>
>% 170-190	3	<input type="checkbox"/>
>% 190 LAGS	0	<input type="checkbox"/>
EGOERA EKONOMIKOAREN PUNTUAZIOA (30 puntu gehienez)		

II. ERANSKINA

EKARPEN EKONOMIKOAREN BAREMOA

A) Onuradunen ahalmen ekonomikoaren kalkulua:

Honako elementu hauek balioetsiz kalkulatuko da ahalmen ekonomikoa: errenta, ondarea eta onuradunen kopurua.

1. Errenta gisa ulertzen da onuradunak edo onuradunek honako bide hauetatik guztira jasotzen dituzten diru sarrera garbiak:

— Lanaren etekinak, barne direla pentsioak eta gizarte aurreikuspeneko prestazioak, edozein erregimenetakoak direla ere; aldi baterako edo bizi arteko errentak, eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta.

— Kapital higigarriaren nahiz higiezinaren etekinak.

— Enpresa edo lanbide jardueren etekinak.

Errenta kalkulatzean, ez dira diru sarrera modura hartuko:

— Etxebizitza Prestazio Osagarria, PEKen titularrentzako etxebizitzaren osagarria eta Etxebizitza Legetik erator litezkeen laguntzak.

— Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko legetik eratorritako prestazio ekonomikoak.

— Seme edo alaba adingabe bat ardurapean edukitzeagatiko Gizarte Segurantzako Institutuaren prestazio ekonomikoa.

— Lanbide zentro batean jardutegatik jasotako haborokin ekonomikoak.

— Aurretiko ohiko etxebizitza batetik alde egin behar izanez gero arkitektura-oztopoengatik edo salbuespenezko arrazoi batengatik (genero indarkeriaren biktima...), etxebizitza haren alokairutik jasotakoa, etxebizitza berria alokatzeko edo erosteko kredituaren gastuei aurre egiteko beharrezko zenbatekoraino (etxebizitza berriaren gastuaren zenbatekoa gainditzen ez duen parte). Zenbateko baten eta bestearen artean gaidikinik balego, diru sarrera giza hartuko da.

Diru sarrera guztietatik, honako hauek kenduko dira:

— Ebazpen judizial bidezko banantzeagatiko konpentsazio pentsioen edo/eta gurasoen eta seme-alaben arteko neurriengatikoen ordainketa, halakorik balego; sarrera horiek kanpo uzteko, dagokien justifikazioa aurkeztu beharko da.

— Zerbitzuen aldibereko erabileragatiko ekarpenak: erabiltzailea aldi berean laguntza edo lanbide izaerako beste gizarte zerbitzu baten onuraduna bada, urteroko bat kenduko da diru sarreretatik, laguntza izaerako beste zerbitzuaren gaineko eskumena duen administrazioaren ebazpen bidez ezarritako ekarpenaren eguneko prezioaren arabera.

2. Ondarea onuradunen kapital higigarri nahiz higiezin guztia da, eskaria egin aurreko bost urteak kontuan hartuta; kanpoan geldituko da saldutako kapital higiezina, haren etekin ekonomikoa dagoeneko kapital higigarrian sartuta egonez gero.

— Kapital higigarritzat jotzen dira: kontu korranteetako eta epe jakinerako kontuetako gordailuak; inbertsio funtsak eta pentsio funtsak; balore higigarriak; bizi aseguruak eta aldi bateko zein biziarteko errentak; arte objektuak, zaharkinak eta bestelako objektu baliotsuak.

— Kapital higiezintzat jotzen dira landa eta hiri izaerako ondasunak. Ohiko etxebizitza (garajea eta trastelekua barne) ez da ondorio hauetarako kapital higiezintzat hartuko.

Era berean, ez da zenbatuko ondare higiezina, baldin eta haren gaineko titulartasuna % 100ekoa ez bada.

3. Bizikidetzaren unitatetzat hartuko da ohiko etxebizitzan bizi diren pertsona guztiek osatzen dutena.

4. Libreki erabiltzeko kopurua.

Arlo horretan indarrean dagoen udal arautegiaren arabera zehaztuko da libreki erabiltzeko kopuruaren zenbatekoa, bizikidetzaren unitatea osatzen duten pertsonen kopurua aintzat hartuta, hala dagokionean.

Zerbitzu motaren, onuradunaren edo onuradunen ondarearen eta haien errentaren arabera, jarraian adierazitako moduan zenbatuko dira:

— Etxeko laguntza zerbitzua eta zerbitzu mistoa (etxeko laguntza + laguntza mistoa): Bizikidetzaren unitateko kideen arabera kapital higiezina eta higigarria eta per capita sarrera garbiak.

— Laguntza pertsonaleko zerbitzua. Onuradunaren kapital higiezina eta higigarria. Ezkontzetan edo izatezko bikoteetan, bi pertsonen ondarea batu eta zati bi egiten da, eta zati bat bakarrik hartzen da kontuan.

B) Ezarritako orduko prezioari onuradunek egin beharreko ekarpenaren kalkulua:

Unean-unean horri buruz indarrean dagoen udal arautegiaren arabera zehaztuko da erabiltzaileak arautegi horretan ezarritako gehieneko prezioari egin beharreko ekarpena; erabiltzailearen ahalmen ekonomikoa hartuko da horretarako kontuan, A) atalean aurreikusitakoari jarraituz kalkulatu.

